

belarekin arazoak izaten ditut, bi aldetatik. Batetik, sortzeko unean daukadan bulkada, inspirazio edo kemen horrek ez dit irauten nobela bat idazteko behar den denbora luzean. Bestetik, kostatzen zait asmatzea zer egitura eman kontatu nahi dudana guztia-ri, erritmo egokia bilatzeari. Nire idazteko moduarekin ere badu zerikusia. Normalean ideia bate-rik abiatzen naiz, eta ez dut oso ondo jakiten nora iritsiko naizen. Zer idatziko duzun zehazki jakin gabe idazteak dakar hasieran bururatu edo ez litzazkizukeen ideiak izatea, eta horiek politagoak eta distiratsuekoak izaten dira alde aurretik planteatutakoak baino. Baina alde txar bat ere badu idazteko modu horrek: batzuetan nora ezean gelditzen zarelana eta zure lana kaxoian gorde-zen duzula.

Horregatik da zure neurria ipuin luzearena?

Bai. Idazten hasi nintzenean ipuin laburrarekin hasi nintzen, neurri estandarragoekin. Baina denborarekin konturatu naiz istorioak kontatzeko gustatzen zaidan neurria ipuin luzeagoarena

«Torturatuak izan direnak ez dira aitortuak izan. Askotan ez da aitortzen tortura izan denik ere. Desoreka ankerregia da»

«Hainbeste gustatu zait nire obrak taulan ikustea, non antzerkia idaztekoan nahiko nukeen berriro taulara iristea»

dela. Bi faktore uztartzen dira horren atzean, nire ustez. Batetik, benetan horrelako istorioak kontatu nahi ditut. Ez dut egiten ipuin abangoardistarik. Pertsonaia errealistak egiten ditut, haiei gertatzen zaizkien gauzak, haien barrunbeak, sarritan haiei lehen gertatutakoak ere sartzen ditut... Bestetik, berez gustatzen zaidan zerbait izateaz gain, irakurketek ere elikatu dute hori. Ipar Amerikako ipuingileen literatura asko irakurtzen dugu. Europako edo Hego Amerikako ipuingileei ez bezala, Ipar Amerikakoei gustatzen zaie neurri hori, ipuin luzearena.

Zer idazten ari zara orain?

Baditut hainbat istorio hasita, eta nire aldatuta aldatuta dago, beste bat da *Arantzak barrurantz*-eko ipuinak idatzi nuen garaikoarekin konparatuta. Bizitzari alaiago edo begiratzen diot eta nahiko nuke beste modu batean idatzi,

edo beste gai batzuk landu. Ez da erraza. Batzuetan probak egin eta ez naiz gustura geratzen. Eta urte-etan aurrera egin eta zenbat eta liburu gehiago argitaratuak izan, orduan eta zailagoa bihurtzen da zerbait berria egitea... Baina bai, nahi nuke zerbait ezberdina egin. Asmatuko dudana, ez dakit.

Antzerkigintzan, arrakasta handia izan duzu azken urteetan. Antzerki gehiago idazteko asmorik baduzu?

Obra bat bidean da, baina ez da berria, lehendik idatzitakoa baizik, *Amodiozko ziega*. 2015eko otsailan estreinatuko dute Lauka taldeko antzezle gazteek, Zubi sariaren laguntzarekin. Antzerki gehiago idatzi nahi nuke, baina zalantza daukat. Hainbeste gustatu zait nire obrak taula gainean ikustea, zuzendari eta aktore onen eskutik gainera, non antzerkia idaztekoan nahiko nukeen berriro ere antzeztua izatea. Denok dakigu antzerkia paperean nekez argitaratzen eta oso gutxi irakurtzen dela. Horregatik, papereko antzerkia idazteak ez nau kilikatzen. Nahia go nuke talde batekin adostu, eta haiekin ba-

tera jardun gero sortze lanetan eta abar... Aukerarik balego, saiaturiko nintzateke.

Euskal literatura «auzo-lan gisa» ulertzen duzula esan zenuen BERRIAK 2006an egindako elkarrizketa batean. Azken urteetan, ordea, ezkutu-ko lehia eta borroka indibidualen zantzuak nabari dira. Lehengoari eusten diozu?

Begirada zabalduz, idazleen arteko giroa jasotzen duten kanpoko liburuak irakurtzen badituzu, berdin dio gaur egungo Bukaresten den, bi mundu gerren arteko Vienan, 1968ko Pragan edo duela hamar urteko New Yorken, non nahi daude antzeko saltsak, xextrak, borrokak, nabarmendu nahiak. Ideiekin lan egiten duzunean, ideien aldeko borroka ezin bestekoa da. Lehia giroari naturala eta saihetsezina da. Ez naiz horretaz harritzen, eta ez naiz kexatzen. Baina letretako lana eta bizitza beste modu batean ulertzen duen jendea ere ezagutu dut. Utopikoa izan daiteke, baina nik segituko nuke auzolana errebindikatzen. Letren munduan ezagutu nuen lehenengo idazleetako bat Joxe Azurmendi da. Azurmendi bere ideien aldeko borrokan partaide da, baina euskal kulturaren ikuspuntu zabal bat izan du beti, eta saiatu izan da bere lana komunitate baten zerbitzuan jartzeko. Niretzat eredu bat da.



Irati Goikoetxea Donostian, liburuak aurkeztu zuen egunean. JON URBE / ARGAZKI PRESS

Zer bururatu, hori idatzi

Pentsamenduari aske utzi, eta eromenaren alderdi txikiei bide egin die Irati Goikoetxeak, *‘Andraizea’* ipuin liburuak osatzen duten narrazioetan

Igor Susaeta Donostia

Hasteko, eta badaezpada ere, Irati Goikoetxeak (Beasain, Gipuzkoa, 1984) argi utzi nahi izan du: *Andraizea* (Erein) ipuin liburuak, haren estreinakoa, ez da ez emakumezkoasunari ez eta eromenari buruzkoa ere. Iruditzen zaio, hori bai, eromenaren alderdi positiboak erakusteko ahalgina egin duela, eta, hortaz, hamabost kontakizunez, «zoroaldi txikiz», osatu du liburuak. «Sinetsita nagoelako zoroaldi txiki horiek edertzen dutela bizitza». Goikoetxearen iritziz, bizi gara marko formal mugatu batean, eta horrek giro aspertu bat sortzen du. «Niri gehiago interesatzen zaizkit keinu, elkarrizketa, pentsamendu ez-formalak». Horregatik, pentsamenduari bere bidea aske egiten utzi behar zaiolakoan dago. Eta hori «oinarrizko ideia» gisa hartuta, «zer bururatu, hura idatzi» josi du liburuak.

Goikoetxeak inoiz entzun izan du hego haizeari *andraizea* ere deitzen zaiola. Hartara, liburuak hamabost kontakizunetako hamahiruk emakumezko baten izena dute izenburu. Egileak ez du sekula horri buruz ikertu, baina sentipena dauka, «ez dakit zergatik», emakumezkoak ausartagoak, koloretsuagoak, eroagoak direla. «Ozenago egiten dute irri-

barre». Halere, emakumezko horiek, kontakizunetako izenburuetakoak – *Carmen, I-tz-i-ar, Julia, Pruden, Adela, Esther, Mara, Matilde, Edurne...* –, ez dira istorioetako protagonistak. «Asmatutako pertsonaia dira. Izen horiei begira daudenak dira pro-



Niri gehiago interesatzen zaizkit keinu, elkarrizketa, pentsamendu ez-formalak»

Irati Goikoetxea
Idazlea

tagonistak», argitu zuen Goikoetxeak, Donostian, liburuaren aurkezpenean. Hain zuzen, begiradetan sinesten duelako egituratu ditu ipuinak molde horretan. «Sinesten dut begiradek sor ditzaketen hausnarketetan, pentsamenduetan».

Ariketa egokitzen dauka Goikoetxeak norbera bere «pentsamenduetan» hizketan aritzea, hari entzutea. Dena dela, pentsamenduetan beldur garelakoan dago. «Ez dugu tarterik hartzen gure pentsamenduen jolastei; ez ditugu kanporatzen. Pentsamenduetan mutilatzen ditugu». Haren iritziz, horiek «ahots ez-

berdin asko» dituzte, eta horietara heltzen ahalegindu da.

Pertsona bereziak dira kontakizunetako agertzen direnak. «Bihotza falta zaie; hildakoak daramatzaite ipurdian; hodeiak arrantzatzen dituzte; egun osoa pasa dezakete irakurtzen...». Eta bada, esaterako, bihotzaren erdia daukan bat, lepoak neurtzen dituen ile-apaintzaile bat, eta baita segundak, minutuak kontatzen maitemintzen den beste pertsonaia bat. Goikoetxearen aburuz zertzeladak dira, zenbakiekin eta «zenbatze kontuekin» egindako jolasak. «Matematika irakaslea naiz, eta horrek, beharbada, edukiko du zerikusirik horretan».

Ukitu surrealista

Inazio Mujika Iraola Erein etxeko editorearentzat prosa inbidiagarria dauka Goikoetxeak; «landua, efektista». Eta iruditzen zaio istorioek ukitu surrealista daukela. Izan ere, eskua buruaren aurretik joan da askotan, egilearen esanetan. «Ez diot mugarik jarri». Irribarre batekin idatzi ditu kontakizunak. «Ea irakurtzen duenak ere irribarre zabal batekin egiten duen».

Hainbat literatura sariketa irabazitakoa da Goikoetxea, eta 2010 eta 2013 artean ondutako ipuinekin, asko maite dituen erokeriekin, osatu du *Andraizea* lana.